


Normaltasunera buelta jomuga



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

www.urrategiinteriorismo.com

dica ® www.dica.es

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943857244

Arragueta 27
20600
Eibar
943857244





bista eder

clinica dental - hortz klinika



Elkarrekin berreskuratuko
dugu irribarrea.



bista eder

clinica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82


bista eder, 19 20600 eibar

www.bistaeder.es



bistaeder_clinicadental






Covid-19

Positiboa eman dutenak
ESKUALDEKO DATUAK

- Eibar186
- Ermua154
- Elgoibar33
- Mutriku10
- Soraluze8
- Deba6
- Mendaro3
- Mallabia1

Datu hauek atzo
(apirilak 16) 20:00ak
arte jasotakoak dira



ARGITARATZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak.
HELBIDEA: Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18 603 598 285
FAXA: 943 20 28 72.
ASTEKARIAREN E-MAILAK: erredakzioa@etakitto.eus
 komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK: elkarte@etakitto.eus
 normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
 Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA: Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez
DISEINUA ETA MAKETAZIOA J.L. Gorostegi
ARGAZKI ARLOA: Malen Jainaga eta Malen Illarramendi
HIZKUNTZA ARDURA: Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia
TELEFONOA: 943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA: Enrike Albistegi
COPYRIGHT-A: ...eta kitto!



Eibariko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

#Eibarrenbadakagu

#nikEibarrengastaukot

herrian kontsumitzeko kanpainak

“Eibarren badakagu, Eibarren gastaukot”, herrian kontsumitzeko kanpainak jarri ditu martxan ...eta kitto! Euskara Elkarteak.

Egoera ez da erraza eta gure bizimodua goitik behera aldatu da, herriko hainbat negozioren biziraupena, eta ondorioz, gizarte osoaren egonkortasuna kolokan jartzeraino. Ezin dugu ahaztu bertako negozioek gizarte osoan eragiten dutela, gizartekintzan, osasun-arloan, hezkuntzan... zerbitzuak jaso ahal izateko ezinbestekoa da bertan gastatzea, bertan gastatzen duguna bertan gelditzen zaigu, denok irabazle.

Tamalez, hau ez da, eta ziur asko ez da izango, gure herrian bizi izan dugun lehen krisia, baina gaur hemen bagaude, gure aurrekoek egokitzeko, modaltzeko eta elkarrekin aurre egiteko gaitasuna izan zutelako da.

Arazo, krisialdi eta erasoen aurrean eibartarrok denok elkartuta egin ohi dugu aurre. Kokildu beharrean, harrotu eta gureari tinko eutsi diogu, eta oraingoan ere horrela izango da. Horregatik, herrian bertan gastatzeko kanpaina abiatu dugu, eta, elkartasuna kalean adierazterik ez dugunez, argazki edo bideo laburren bitartez egitea eskatu nahi dizuegu.

Apirilaren 6an hasi ginen eta gaur amaiera emango diogu, baina beste fase batean sartuko gara laster. Astekarian izango duzue negozio jabeentzat prestatu ditugun neurriak. Dena dela, **herritarrek kanpainak** bere horretan jarraitzen du. Beraz, bidali **zuen argazki bat**, orri batean esaldi hau idatzirik: **#nikEibarrengastaukot** Oztopoak elkarrekin gainditu izan ditugu eibartarrok, eta oraingoan ere gauza bera egingo dugu.

Argazkiak eta bideoak ondorengo helbidera bidali, mesedez:

normalizazioa@etakitto.eus





Funtsezko lanetatik bueltan

ETXEKOAK EZ KUTSATZEKO GOMENDIOAK

Etetik kanpora derrigorrez lanera joan behar dutenentzat dibulgazio-material berria prestatu eta eskuragarri ipini du **Gipuzkoako Erizaintza Elkar-goak**, etxera bueltatzen direnean familiakoak ez kutsatzeko hartu behar diren neurriak azaltzen dituen informazioarekin.

Beste ezer baino lehen, oinetakoak erantsi eta kartoizko kaxa batean lagatzea gomendatzen dute, poltsarekin, giltzekin eta diru-zorroarekin batera. Behin hori eginda, zuzenean joan behar da eskuak garbitzera, etxe barruan ezer ikutu baino lehen eta, ahal izanez gero, etxean ezertan hasi aurretik duxtatzea gomendatzen dute.

Aipatutako neurriekin batera, oso garrantzitsua da mugikorra eta betaurrekoak toailatxo batekin desinfektatzea, ura eta xaboiarekin edo, bestela, 70 graduko alkoholarekin garbituta. Eta gainerako objektuak, berriz, uretan disolbatutako lixibarekin (20 cc ur litro bakoitzeko) garbitu behar direla gogorarazi nahi diete langileei.

Azpimarratu dutenez, **“etxera sartzeko unea da kritikoenetako bat, kutsatuta egon gaitezkeelako. Horregatik gure arreta guztia jarri behar dugu, kanpotik ekarri dugun guztia behar bezala garbitzeko, birusa etxe barruan heda ez dadin”**.


Horrez gain, badaude arretaz zaindu beharreko beste hainbat gauza: gaitotasunaren sintomarik agertzen den ondo zaintzea, erabilera pertsonaleko gauzak (eskuoihalak, edalontziak...) besteekin ez partekatzea eta erropak garbitzeko ur beroa (60° edo gehiago) erabiltzea, besteak beste.



LANETIK ETXERA BUELTATZEN GARENEAN ZAINDU BEHARREKOAK



COVID-19 Koronabirusa



Udalak COVID-19ari buruzko gaiak biltzen dituen

atal berria sortu du bere webgunean

Herritarrei, modu ordenatu eta argi batean, alarma egoeraren ondorioz egunotan sortzen ari den informazio guztia emateko asmoz, Udalak COVID-19ari buruzko atal berria sortu du bere web orrian. Atal horretan, udal-eremuari dagokion informazioarekin batera, beste erakunde batzuetakoa ere biltzen joango dira.

Besteak beste, honako gai hauek kontsultatu daitezke: “Osasun-arretarako zentroak”, “Adinekoentzako eta mendekoentzako laguntza-zerbitzua”, “Ekonomia eta diru-laguntzak”, “Garraio publikoa” edo “elikadura-zerbitzuetan eusteko neurriak”. Horrez gain, Eibarko Udalak, konfinamenduko aste hauetan, herritarrei eskaintzen ari zaizkien zerbitzu eta bestelakoen berri ematen dute.

Azaldu dutenez, *“kontsultatu daitezkeen informazio asko herritarrei helarazi zaizkie, sortu ahala. Horren adibide dira zerga eta ekonomia arloan hartu diren neurriak, hala nola Eibarko egutegi fiskalaren aldaketa, Udalak eskainitako zerbitzu eta ikastaroei dagozkien tasen kobrantza etetea, eta ‘Umeak Eskolara’ eta ‘Diru laguntzak Ikasleei’ programetara bideratutako aurrekontu partida bikoizteko erabakia”*.

Eduki berrienetako bat errolda edo bizikidetzatxartela eskatzeko moduari buruzko informazioa da: *“Alarma-egoeraren ondorioz egoera ekonomiko ahulean dauden pertsona guztiek eskatu ahal izango dituzte, pegora@eibar.eus helbidearen bidez, banku-erakundeekin hipotekaren moratoria izapidetzeko beharrezkoak diren dokumentu horiek”*.

COVID-19 Koronabirusa: informazio guztia, klik bakarrean
 Coronavirus COVID-19: toda la información, a un solo click
 #NIETXEANGELDITUKONAIZ
 #YOMEQUEDOENCASA

COVID-19 koronabirusa: informazio guztia, klik bakarrean

Koronabirusari buruzko udal informazioa eta interes orokorrekoa.

[GEHIAGO IRAKURRI](#)

JON PEREZ, BEXEN MEDICAL-EKO PRODUCT MANAGER EIBARTARRA:

“Sei hilabetetan 60 milioi maskara egiteko eskatu digute”

– Nola iritsi zitzaizuen *Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren eskaera?*

Estatuan maskarak, amantalak eta eskularruak lortzeko zailtasunak zituztenez, martxoaren 13an deitu ziguten. Bexen Medicaiek 40 urte baino gehiago daramatza osasun produktuak eta ospitaletarako materiala ekoizten, baina deitu ziguten momentuan ez genuen maskararik ekoizten. Maskarak ekoizteko gai izango ginen galdetu ziguten eta horrela egingo dugu.

– Nola moldatu zarete maskarak ekoizten hasiteko?

Mondragon korporazioko enpresa bat gara, Mondragon Assembly bezala, eta eurek maskarak ekoizteko makinak egiten dituzte. Proiektu hau euren batera egingo dugu: eurek makinak egiten eta guk produktuak ekoizten.

– Larrialdi egoera baten ondorioz sortu da eskaera. Lana bizkor egin behar duzue?

Apirileko azken astean eta maiatzeko lehenengoan maskarak entregatzen hasia da gure asmoa.

– Prozesuaren zein momentutan zaudete orain?

Orain makinak ekoizten ari dira eta apirilaren 17an hasiko dira instalatzen Bexen Medicalen. Aste eta erdi beharko dugu doikuntzak egiteko eta ekoizpena optimizatzen, eta ondoren ekoizpena hasiko da.

– Eskaera berezi honek nola eragin du zuen jarduera normalean?

Ezin dugu gure produkzioa gelditu, produktu asko ospitaletan erabiltzen direlako, ZIUn baita ere (Zainketa Intentsiboetako Unitatean), eta eskaerak gora egin dute azkenaldian. Maskara horiek ekoiztea gehigarri bat da guretzat, ez da produktu bat ekoizteari lagatzea maskarak egiteko. Beraz, 20-25 lagun kontratatu beharko ditugu maskarak ekoizteko. Astelehenetik domekara hiru txandatan egin beharko dute lan, etengabe.

– Noiz arte ekoiztuko dituzue maskarak? Kopuru jakin bat ekoiztu arte?

Sei hilabetetan 60 milioi maskara egiteko eskatu digute, hau da, 10 milioi maskara hilabeteko. Gero ez dakigu zer gertatuko den. Izan ere, batzuek diote larrialdi egoera pasatzen denean jendeak maskarak erabili beharko dituela. Edo, adibidez, hurrengo neguan koronabirusa berriz agertzen bada, maskarak beharko dira. Birus honekin elkarrekin bizi behar badugu, ez dakigu zenbat maskara beharko diren. Beraz, egin diguten eskaera handitu egin daiteke.

– Eskaera horrek nola eragin diezaioke Bexen Medicalen ospeari?

Esan bezala, 40 urte baino gehiago daramagu osasun produktuak egiten, baina produktu horiek merkatuan ez dira oso ezagunak. Orain, bat-batean, maskaren kontu honekin toki guztietan agertzen hasi gara. Azken batean, maskarak nahiko produktu normalak dira. Bexen Medicalen ekoizten ditugun beste produktu batzuk askoz ere konplexuagoak dira eta ez dute horrenbesteko oihartzunik. Dena dela, guzti honekin nolabaiteko aitorpena egiten zaigu.



Txina eta Euskal Herriaren arteko elkartasun zubiak

Urtarrilean koronabirusa urrutiko kontua zen guretzat. Txinan, ordea, beltzak ikusten ari ziren urte berriari ongietorria eman ziotenean, urtarrilaren 25ean. Koronabirusaren hedapena gelditzeko neurriak hartu zituzten, baina material falta zuten, eta Eibartik iritsi zitzaizkien maskarak eta beste zenbait gauza. Orain, birusa kontrolpean hartu ondoren, solidaritatea bueltan dator.

Txinatik Eibarrera ekarri dituzten milaka maskaren atzean protagonismorik nahi ez duen eibartarra dago, baina solidaritate istorio hau ezin da ulertu berak kontatu diguna jakin gabe.

ANTXON SAN MIGUEL eibartarrak 12 urte daramatza Txinan bizitzen. Emaztearekin eta bi alabekin bizi da Ningbo izeneko hirian eta, txinatar guztiek bezala, hilabeteak daramatza koronabirusari aurre egiten. *“Txinako urte berria dela eta oporrak genituen eta Tailandiara joan ginen urtarrilaren 15ean, baina koronabirusaren ondorioz Txinan gauzak txarto jartzen ari zirela ikusten hasi ginen”*, esan digu bideo-dei bitartez.

Antxonek Bartzelonako enpresa batentzat egiten du lan Txinan eta otsailaren 2an itzuli behar zen lanera, baina lantegiak eta eskolak itxita egongo zirela esan zuten agintariek. *“Nagusiak esan zidan Euskal Herrira itzultzeko, nahi banuen. Beraz, familiarekin joan nintzen, eurak Euskal Herrian geratu eta ni Txinara itzultzeko asmoz”*.

Txinara itzuli aurretik, ordea, 1.000 maskara eta eskuetako alkohola erosi zituen, Txinan beharra zutelako. *“Lankideek asko eskertu zuten material hura eramanez izana, Txinan gauza guzti horiek gastatu egin zirelako, urrea izango balitz bezala”*. Orain, egoera irauli egin da, eta Euskal Herrian dago beharra.

15.000 maskara momentuz

Eibarren bizi den familiak eta lagunek hemengo egoeraren berri eman diote Antxoni, eta maskarak, eskularruak, trajeak... lortu ahal zituen galdetu zioten. *“Nola lagundu nezakeen pentsatzen hasi nintzen eta, bai, banuen materiala lortzeko aukera”*.

Txinako lagun eta lankideek esker onez jaso zuten Eibartik bidalitako materiala eta orain, arazoa hemen dagoela ikusita, materiala bildu dute gure beharrak asetzeko. *“Ezer eskatu barik egin dute guzti hau, esker ona erakusteko, beste barik”*.

岂日天涯远，与君共战“疫”！

**ESTAMOS LUCHANDO JUNTOS ESTA BATALLA, SOMOS AMIG@S!!!
BORROKA HAU ELKARREKIN ARI GARA, LAGUNAK GARA!!!
LLUITEM JUNTS EN AQUESTA BATALLA, SOM AMICS!!!**



Dagoeneko iritsi dira Txinatik bidalitako hainbat kaxa, baina Antxonek dio gehiago bidaliko dutela. Oraingoan, ospitalean 5.000 maskara jaso dituzte, baita Udalean ere, eta hilaren 15ean iristekoak ziren kaxekin 15.000 maskara bidali dituzte guztira Txinatik.

Txinako esperientzia

Ningbo Shangaitik bi ordura dago. *“Txikiagoa da, askoz politagoa eta lasaia goa”*, Antxonen ustez. Wuhanetik 700 kilometrora dago, baina koronabirus kasu gutxi izan dira Antxon bizi den tokian. *“Zortzi kasu inguru izan dira, baina Txinan inoiz ez dakizu zer den egia eta zer gezurra”*.

Koronabirusaren hedapena gelditzeko kontrol neurri handiak hartu dituzte Txinan. *“Hemen urbanizazio antzekoetan bizi gara eta segurtasun kontrol batetik pasa behar gara sartzeko eta irteteko, eta lanera joateko baimena erakutsi behar izan dut beti. Gero, familia bakoitzetik pertsona bat astean birritan bakarrik irten zitekeen gauzak erostera, beste inor gehiago ezin zen irten. Bestetik, lanera joateko autobidea hartu behar nuen, eta sarreran eta irteeran kontrolak egiten zituzten. Eta lantegian lau ordutik behin gure tenperatura neurtzen genuen. Gainera, telefono mugikorrean dugun aplikazio batekin nondik nora ibiltzen ginen jakinarazten genuen”*. Hemen hartu diren neurriak baino zorrotzagoak, duda barik. *“Euskal Herrian eta mendebaldeko beste hainbat herrialdean horrelako neurriak hartu izango balira, demokraziarik eta askatasunik ez dagoela esango luke jendeak”*, Antxonen ustez. *“Baina 12 urte hauetan diziplinatua izaten ikasi dut, arauak jarraitzen ditut, eta Euskal Herrira joaten naitzenean ikusten dut Txina oso aurreratuta doala zentzu horretan”*.

Emaztea eta alaba biak martxoaren 18an itzuli ziren Txinara eta ozta-ozta sartu ziren. Txinak asko kontrolatu ditu atzerritik ekarritako koronabirus kasuak eta martxoaren 28tik aurrera atzerritarrak ezin dira herrialdean sartu. *“Emazteari eta alabei autobusa jarri zieten aireportuan eta ni etxetik kanpo egon behar izan nintzen 15 egunez hotel batean. Egunero medikuak joaten ziren euren gana kutsatuta ez zeudela ziurtatzeko eta, 15 egun eta gero, garbi zeudela ikusita, berriz elkartu ahal izan ginen”*.

Eskolak urtarrilaren 15ean itxi zituzten eta alaba nagusia hilabete honetan hasi zen berritua. Alaba txikiak, berriz, 4 urte ditu eta datorren ikasturtera arte ez du eskola hasiko. *“Beraz, uste dut Euskal Herrian irailera arte ez dela eskolarik egongo”*. Hemen oraindik bide luzea dugu egiteko eta Antxon udan Eibar bisitatu barik geratuko da. *“Ezinezkoa izango da bidaiatzea, bertako turismoa egin beharko dugu Txinan”*.



HASI DA ERRENTA AITORPENA EGITEKO SASOIA ETA ERRENTA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA JARRI DA MARTXAN. EIBARREN GUTXIENEZ 1.500 ERRENTA AITORPEN EUSKARAZ EGITEA DA HELBURUA ETA, HORRELA, IAZ EGIN ZIREN 1.402 ERRENTEN KOPURUA GAINDITZEA. MIKEL AZKARATE GIPUZKOAKO OGASUNEKO TEKNIKARIA DA ETA ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINEI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN DIGU.

MIKEL AZKARATE, OGASUNEKO TEKNIKARIA:

“Administrazioarekin euskaraz aritzeko kultura soziala zabaldu nahi dugu”

– *Zein da kanpainaren helburua?*

Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko harremanetan hizkuntza berdintasunari begira jauzi kuantitatibo bat egitea da ‘Ogasunarekin euskaraz’ ekimenaren helburua. 2023. urtean, fiskalitatearen arloan, 100.000 herritarrez osatutako giza multzoa Ogasunarekin naturaltasunez euskaraz aritzera iritsi nahi da. Horixe izango da Foru Ogasunaren ekarpena, herritarren artean administrazioarekin euskaraz aritzeko kultura soziala zabaltzeko. Era berean, Gipuzkoako udalen ahalegina estimatzekoa da, aspaldidanik azken xede horretan laguntzen ari baitira, udal hizkuntza zerbitzuen bidez ‘Errenta aitorpena euskaraz’ ekimena antolatuta.

– *Errenta euskaraz egiten dutenen kopuru jakin batera heltzea jarri duzue helburu?*

Nahiz eta herritar euskaldunen artean aitorpena euskaraz aurkezteko ohitura sustatzea ere helburua den, Foru Ogasuna haratago doa: euskaraz ondo moldatzen diren herritarrak eta administrazioa naturaltasunez euskaraz komunikatzea, beti ere haien hizkuntza hautuari jarraituz. Horretarako, gonbita egiten du errenta aitorpenean euskarazko hizkuntza hautua markatu dadin eta, noski, aitorpena euskaraz bete eta aurkeztu dadin. Datu bat aipatzearen, 2005ean Eibarren 590 zergadunek aurkeztu zuten euskaraz beren errenta

aitorpena; 2019an, berriz, 1.280 herritarrek. Beraz, zorionez, oraindik badago irabazteko tarte bat, kon-tuan hartuta eibartar asko euskaraz ondo moldatzen direla.

– *Urteak daramatza martxan errenta euskaraz egiteko kanpainak. Nolako emaitzak izan ditu?*

2004an Gipuzkoan guztira 11.823 zergadunek hautatu zuten Ogasunarekin harremana euskaraz izatea (ia guztiek euskaraz aurkeztu zuten aitorpena); 2019an, berriz, 78.217 herritarrek. Beraz, gora doa kopuruak. 2023. urterako jauzi kuantitatiboa egin nahi da, 100.000 herritarrekin naturaltasunez euskaraz komunikatzeko, bai eta haiek aitorpena euskaraz aurkezteko ere.

– *Zein bide jarraitu ahal dira errenta euskaraz egiteko?*

Une honetan ezin da aitorpena zerga bulegoetan aurkeztu, osasun krisiarengatik itxita daudelako. Interneten bidea lehenetsi da. Orain hiru modutan egin daiteke hizkuntza hautua eta, noski, aitorpena euskaraz aurkeztu: errentako autolikidazio proposamenak telefonoz edo internetez onartzean; Zergabidea plataforman aitorpena prestatzean eta aurkeztean; eta aitorpena gestoriaren bidez aurkeztean. Bestela, errenta kanpainatik kanpo, 030 eredia aurkeztu daiteke internet bitartez, Aldundiaren egoitza elektronikoan, Ogasunarekiko harreman hizkuntza aukeratzeko.

– Errenta euskaraz egiteko baldintza guztiak ematen dira ala toki batzuetan gazteleraz egiteko aukera besterik ez dago?

Ez dago alderik euskaraz edo gazteleraz errenta egiteko garaian. Langileak prest daude bi hizkuntzetan arreta emateko eta izapide guztiak bi hizkuntzatan daude. Telefono arreta ere elebiduna da: zergadunei lehen hitza euskaraz egiten zaie, eta hortik aurrera haien hizkuntza hautuaren arabera erantzuten zaie; webguneko informazio guztia, zerga informazioa, laguntza programak, aitorpena egiteko manuala... guztiak euskaraz lor daitezke. Era berean, Ogasuneko diputatu eta zuzendariak eta Zerga Kudeaketako zuzendariordeak kanpainaren berri emateko egiten duten prentsaurrekoan euskara izan da hizkuntza nagusia.

– Euskara menperatu arren, badago errenta aitorpena gazteleraz egiten duen jendea. Zergatik gertatzen da hori?

Kontuan hartu behar da euskal gizartea historikoki hizkuntza aldetik egoera minorizatu batean egon dela eta, beraz, euskara eremu formaletatik kanpo erabiltzen zela (familia, lagunartea...). Horren ondorioz, azken hamarkadetan hiztun komunitate gisa hizkuntza ohitura berriak ikasten ari gara eremu formaletan: eskolan, lan munduan, administrazioan (eta Ogasunean), interneten.... Bide luzea gelditu arren, norabide onean goaz.

– Koronabirusa dela-eta, errenta aurkezteko epeak aldatu egin dira. Zeintzuk izan dira aldaketak nagusienak? Gehiago egon daitezke?

Errenta kanpainaren iraupena hilabete luzatu da, uztailaren 29ra arte. Aurkezteko modalitateak oraingoz telematikoa eta autolikidazio proposa-

menak izango dira soilik, eta haien hasiera datei eutsi egin zaie. Proposamenak onartzeko lehenengo eguna apirilaren 6a izan da, eta telematikoki aitorpenak igortzeko lehenengo eguna apirilaren 15a izan zen. Aurten ere herritarrei bidalitako proposamenen kopurua igotzea lortu dugu eta, guztira, 7.000 proposamen gehiago bidali ditugu. Egoera honetan aurreikusita daukagu telefono arretak berebiziko garrantzia izango duela, aurrez aurreko arretarik ez baita egongo; zerbitzuaren kalitate maila bermatzeko, 28 langile gehiagorekin indartu dugu zerbitzua. Gainera, izapide guztiak telematikoki egin ahal izateko, BAK izeneko klabea lortzeko bidea erraztu dugu eta guztiz telematikoa jarri dugu martxan eta, zergadunak beste norbaiti baimena eman nahi badio, aitorpena aurkezteko (aholkularitzen kasua), ordezkariak izendatzeko modu erraz eta telematikoa ere prest dago. Bestetik, errenta mekanizatua ez dugu bertan behera laga, baina osasun larrialdiko egoera amaitu arte atzeratu behar izan dugu.

– Neurri bereziak hartuko dira errenta mekanizatua egin ahal izateko?

Errenta mekanizatua nolakoa izango den ez dugu jakingo larrialdi egoera amaitu arte eta lanera zer baldintzatan itzuli gaitzkeen jakin arte. Baina, jakina, errenta mekanizatuko bulegoak irekitzen ditugunean, bai langileen osasuna eta bai herritarrena bermatzeko behar diren neurri guztiak hartuta egingo dugu. Ez dugu ahaztu behar errenta mekanizatuak mugitzen duen jende kopurua: 120 langile inguruk parte hartzen dute eta herritarrek iazko kanpainan ia 75.000 errenta aitorpen aurkeztu zituzten.

“Aurten bai, Eibarren 1.500 euskaraz”



ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Mekanizatua egiteko** ordua hartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Internet bidez** egitean errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.

EUSKARA BATZORDEA
www.eibar.eus



IDOIA CORTES, PISSA ZAPATADENDA:

“Ez dakit gutako askok honi aurre egin ahal izango diogun”

– Pissa zapata-dendak 23 urte bete berri ditu, eta konfinamenduak bete-bete harrapatu du urtebetetzea. Egoera gazi-gozoa izango da, ezta?


Bai, aurtengo urtebetetzea erabat ezberdina izan da. Alde ona zera da, urteurrena atea itxita ospatu dugun arren, mezu asko jaso ditudala bezero eta eibartar askoren aldetik, euren babes eta hurbiltasuna adieraziz, eta horrek asko animatu nau. Alde txarra, berriz, aurrera begirakoa: beteko ote ditu dendak 24 urte? Gaur egun, hainbeste gasturi aurre egin behar izanda, zaila da dirua aurreztuta izatea, etekinak ez direlako oso handiak. Esango nuke dendari gehienon kasua dela. Beraz, etorkizuna guretzat ez da erraza izango, eta ez dakit gutako askok honi guztiari aurre egin ahal izango diogun. Momentu honetan, ezjakintasuna da nagusi gure artean, ez dakigulako noiz ireki ahalko ditugun atea. Dendak ordaindu beharreko generoz beteta dauzkagu, baina saldu gabe ez da erraza. Nire kasuan, esaterako, hainbat bota saltzeke itxi dut denda, eta seguruen, ireki orduko, berandu izango da horiek erosteko. Horixe da gure arazorik handiena, generoarena; saldu ezean, biltegian pilatuta geratzen zaigu-eta.

– Zer dakarkie alarma-egoera honek denda txiki?

Hitz batean esanda, guretzako galbidea da egoera hau. Izan ere, autonomo kuotak eta bestelako gastuak ere ordaintzen jarraitu behar dugu, inolako diru-sarrerarik izan gabe. Ea Eusko Jaurlaritzak gure egoera kontuan hartu eta diru-laguntzarik ematen digun.

– Zure kasuan, adibidez, baliabiderik baduzu online lan egiteko?

Kasualitatez, web orria sortzearena buruan daukat udaz geroztik. Eta horretan lanean ari da semearen lagun bat. Ni ez naiz ondo moldatzen teknologiarekin eta, gainera, ez dut gustoko, hutsaren hurrengo naiz arlo horretan. Baina egoera honek erakutsi dit ahulezia horri aurre egin behar diodala, eta argi daukat buru-belarri jarri behar naizela ikasten. Ea horrela online bidez saltzen hasten naizen! Egia esan, nire produktuak, zapatak edo oinetakoak, probatu gabe saltzea zaila ikusten dut, baina badirudi hori dela etorkizuna; beraz, oraindik 15 urte gertatzen zaizkidanez erretiratzeko, ezinbestekoa dut bide hori ere jorratzea.



– Ez da erraza izango osasun eta ekonomia krisi honetatik irtetea. Nola ikusten duzu denda txikien etorkizuna?

Jendeak badaki gure egoera latza dela eta, egun hauetan jaso dudanagatik, argi daukat laguntzeko prest dagoela, eta erantzun positiboa izango dugula herritarren aldetik. Gainera, esango nuke oraingoan merkataritza-guneek baino errazago izango dugula aurrera egitea (ez badigute online bidezko kompetentzia handirik egiten); izan ere, gure dendak gune handiak baino lehenago zabalduko direla uste dut, eta horrek aurrera egitea ahalbidetuko digu.

– Une zailtan elkarlana funtsezkoa dela diote. Batera ari zarete lanean dendariok irtenbidea topatu nahian?

Oro har, dendari bakoitzak bere interesen arabera jokatzen du, sektoreak ezberdinak baitira, eta zaila izaten da ados jartzea. Esate baterako, duela pare bat aste proposamen bat egin nuen dendarien elkartean, aurtengo udako beherapenak abuztura atzeratzeko, eta askoren partetik ezezkoa jaso nuen. Oso zaila da denok bat egitea. Publizitate kontuatarako ondo etortzen zaigu batera aritzea, baina beste zenbait kontuatarako ezinezkoa da batasun hori lortzea.

– Covid-19ak sortutako egoera honek badu alde onik?

Komertzialki, lanari begira ez diot alde positiborik ikusten. Baina, lehen aipatu bezala, egia da nire ahuleziak (teknologiarekin lotutakoak) zein diren ikusi eta haiek lantzeko aukera eman didala. Pertsona gisa ere aberasteko balio izan didala uste dut.



Elhuyar eta Ane Galarragarekin “Covid-19aren izurria argitzen”

Elhuyar Zientziako lantaldeak bideo-pilula sorta bat prestatu du, koronabirusaren inguruko argibideak emateko. “19aren izurria argitzen” izenburuari jarraituta, Ana Galarraga Aiestaran Elhuyarreko kideak minutu bateko bideoetan hainbat gai landu ditu: hala nola, birusaren jatorria, komunitate zientifikoaren ahalegina, adinaren araberako eragina, emakumeak zaurgarriago izatea, edota tratamenduen inguruan. **Guztira bederatzi bideo-pilula dira** eta, martxoaren 30ean hasita, egunero joan dira horietako bat argitaratzen, Elhuyarren sare sozialetan eta zientzia.eus atarian. Horrez gain, euskarazko 30 hedabide baino gehiagotan ere hedatu da edukia, tartean ...eta kitto! aldizkariaren webgunean eta sare sozialetan.

Elhuyarretik azaldu dutenez, *“koronabirusak sortu duen egoera berezi honetan, herritarrei euskarazko informazio irizpidedun eta kalitatezkoa ematea ezinbestekoa da Elhuyarren ustez; eta lan horrek hedadura handiagoa izan dezan, euskarazko komunikabideekin elkarlana sendotzeko abagunea aprobetxatu nahi izan du, eduki hori guztion eskura jarritz”.*

Bederatzi atalak etakitto.eus/mediateka/ etxeanetakitto helbidean aurkituko dituzue. Jarraian ikus dezakezue atal bakoitzean zeri buruz ari den zientzia-dibulgazioan aditua den kazetaria.





covid zientziatik

adin guztietakoak



emakumeak zaugarriago

konfinamendua



pandemiaren metaforak

mutazioak



sukarra

- 1. atala: Saguzarretatik gizakietara

Lehen atal honetan birusaren jatorriaz hitz egiten da. Saguzarretatik pasa da gizakietara, eta beste korona-birus batzuekin antza du COVID-19 honek.

- 2. atala: Mesederik ez

Komunitate zientifikoa ahalegina egiten ari da krisialdi honetan zientzia-politikan eragiteko beharra agerian uzteko.

- 3. atala: Adin guztietakoak infekta daitezke

Adinekoak dira gehien kolpatu dituenak gaitzak, baina fokua soilik eurengan jartzeak desitxuratu dezake argazkia. Gazteei eragiten ez diela pentsatzeak ekarri du asintomatikoek beste pertsona batzuk ere kutsatzea.

- 4. atala: Emakumeak zaugarriago

Txinako datuetan ikusi zuten gizonei gehiago eta larriago eragin ziela koronabirusak. Horren atzean sexu-eta genero-arrazoiak daude (immunitate-sistemaren diferentziak eta tabakismoa). Alabaina, genero-be-reizketak emakumeak zaugarriagoak egiten dituela ohartarazi dute: osasun-langile gehienak emakumeak dira, eta haien gain geratzen dira zaintza-lanak.

- 5. atala: Erabateko konfinamendua

Asko dira erabateko konfinamendua eskatzen ari direnak, tartean zientzialari asko, neurri eraginkorrena delakoan. Baina, zertan bereizten dira konfinamendua, bakartzea eta berrogeialdia?

- 6. atala: Pandemiaren metaforak

Gerra-hizkera erabat zabaldu da COVID-19az hitz egi-terakoan. Baina zientzialariek ohartarazi dute horrek arrisku handiak dituela. Eta gerraz baino suteaz hitz egingo bagenu?

- 7. atala: Birusaren mutazioak

Birusek mutatu egiten dute, eta hor dago aurre egi-teko zailtasunetako bat. Gripearean aldean, koronabi-rusek gutxiago mututzen dute, baina COVID-19ak ere, baina beste birus batzuek baino gehiago.

- 8. atala: Tratamenduak proban

Birusei aurre egiteko antibiralak erabiltzen dira. Beste birus batzuen aurrean erabilitako botikekin egiten ari dira proba-klinikoak mundu osoan, zerotik hasia baino errazagoa baita lehendik probatutako botikekin saiakerak egitea.

- 9. atala: Sukarra, adierazle

Sukarra da, arnasa hartzearekin eta ezturekin ba-tera sintomarik adierazgarriena COVID-19an. Baina zenbateraino da adierazgarria sukarra?

1.000 babes biseratik gora banatu ditu Armeria Eskolak

Armeria Eskolako kideek martxa betean sortu dituzte babes biserak 3D inprimagailuekin eta, dagoeneko, 1.000 baino gehiago banatu dituzte ospitaletan, anbulatorioetan, dendetan eta beste hainbat tokitan.

Maker komunitateak proposatutako eta Tknikak bultzatutako ekimenarekin bat egin zuen Armeria Eskolak, eta beharren arabera banatu dira eurek sortutako biserak. *“Hasieratik argi izan genuen horrelako gaixotasun baten aurrean gure onena eman behar genuela, eta ahal genuen moduan lagundu, batez ere osasun arloko profesionalei, lan gomendagarria egiten ari baitira, baina baita Eibarko eta inguruko merkatariei ere”*, diote Armeria Eskolakoeak.

Armeria Eskola osoak egin du bat ekimenarekin, baina ikastetxeko 3D inprimagailuak etxera eramane eta logelak tailer bihurtu zituztenen lana azpimarratu nahi dute: *“Zorionak egindako lanagatik eta eskerrik asko Enaitz Eizagirre, Jurgi Barreña, Joseba Etxaniz, Gorka Obieta, Esther de La Fuente, Iosu Agirre eta Koldo Balanzategiri”*.



Euren lana amaitzear da. Izan ere, *“hainbat enpresa hasi dira dagoeneko kopuru handietan babes biserak egiten, eta badirudi beharrak laster asetuko direla. Horregatik, gordeta ditugunak banatu ondoren, amaitutzat emango dugu gure lana. Egindako ekarpena baliotsua izan dela uste dugu, eta guztion artean gaixotasuna ahalik eta azkarren garaitzea espero dugu”*, Armeria Eskolakoeak diotenez.

Toki hauetan banatu dituzte babes biserak:

– Eibarko dendak	337
– Egogain Egoitza	160
– San Andres Egoitza	147
– Arrasateko Iturbide zaharren egoitza	65
– GSR Debagoiena adinekoen egoitza	50
– Etxeko arreta zerbitzua	50
– Zaldibarko gaixotasun mental zentroa	46
– Durangoko egoitza	46
– TKnika	34
– Arrasateko ospitela	30
– Galdakanoko ospitalea	26
– Durangoko anbulatorioa	25
– Oizpe Egoitza (Munitibar)	25
– Mallabiko udala	25
– Eibarko ospitalea	20
– Azpeitiko anbulatorioa	15
– Mendaroko ospitalea	15
– Bermeoko zoroetxea.....	13
– Ebaki	10
– Gipuzkoa Poliklinika	8
– Zorrotzurreko onkologikoa	8
– Berriatuko zaharren egoitza	8
– Urdulizko ospitalea	7
– Arrasateko Irizar farmazia	4
– Donostiako ospitalea	3
– Gernikako dendak	3
– Zumarragako ospitalea	2
– Etxebarriko farmazia	1

Apirilak 14 (Errepublikaren Eguna)

LEPO BETE ZEN PLAZA 89 URTE GEROAGO HUTS-HUTSIK

Gaur egun bizi dugun egoera bereziak gure bizitza goitik behera aldatu duenez, Errepublika Eibarren aldarrikatu zela mendea osatzeko 11 urte falta direnean ere, egun horren ospakizuna berezia izan zen. Izatekotan! Urterik-urteko ekitaldi jendetsuetarako tarterik ez zegoelako oraingoan. Egun hartan herriak bizi izan zuen jai-giroak ez zuen horretarako biderik lagatzen oraingoan. Egun hartan izena hartu zuen Untzaga plazak oso bestelako irudia eskaini zigun martitzenean.



Miguel Primo de Riveraren diktadura erori ondoren, 1931ko apirilaren 12an udal hauteskundeak egin ziren udal demokratikoak osatzeko. Hortik ateratako errepublikar-sozialisten 18 ordezkariak eta nazionalista bakarrak osatu zuten hurrengo korporazioa, Alejandro Telleria alkate zutela. Hurrengo eguna, hilaren 13a, zalantzaz betetakoa izan zen, handik eta hemendik ziurtasun gabeko berriak sortuz. Eta, aurten bezala, martitzena izan zen apirilaren 14ean hainbat zurrumurruk indarra hartu zuten goiz-goizetik. Errepublika aldarrikatu zutela zabaldu zen Eibarren eta eibartar asko bildu zen Untzagako plazan. Zinegotzi berriek Alfontso XIII.aren erretratua kentzea erabaki zuten eta errepublikar bandera igo zuten udaletxeko areto nagusian. Telleria alkateak zinegotzi gazteenari aginduzion bandera hori igotzea, Mateo Kareagari. Orain dela 89 urte hartako apirilaren 14a egun eguzkitsua izan zen. Bezperatik orduko eibartarrak urduri zeuden, ezkerak irabazitako hauteskundeek zer emango zuten zain. Gure herriko emaitzak ezin argiagoak izan ziren: hemeretzi zinegotzitik (gaur egun baino bi gutxiago orduko hartan), hamar zinegotzi sozialista, zortzi errepublikar eta bestea nazionalista. Goizeko 07:00retarako jende asko eta asko batu zen udaletxearen

aurreko Alfontso XIII. plazan. Suhiltzaileen eskailera bat hartu eta gizon batek plazaren izena zerraman plaka kendu zuen eta, orduetik, Untzaga izena hartuko zuen plaza horrek. Bitartean, jendeak saltoka eta jauzika ospatu zituen berriak, jotzen ziharduten Riegoren Himnoaren eta Internazionalaren erritmoei jarraituz. Errepublikaren banderak presiditzen zuen unea. Jarraian pasodobleen ordua izan zen. Eibarren bizi izan zuten jaiak Ermua, Elgoibar eta Elgetako bizilagunak ere izan zituen lekuko, baina handik gutxira zalantzak ere zabaldu ziren herrian, akaso arinegi ospatzen hasi zirelakoan. Jendeak, horregatik, Guardia Zibilararen koarteleraino jo zuen, baina han ere ez zekiten ezer. Arratsalderako argitu ziren kontuak, lehenengo Bartzelona eta gero Madril ere errepublikanoak zirela jakin zenean.

Eibar errepublika aldarrikatzen lehena izateak izan zuen bere saria, handik urtebetera Niceto Alcalá Zamora Errepublikako presidentek herria bisitatu zuenean eta kaleak berriro ere jendez eta musikatuz bete zirenean. Hiri izendapena ere lortu zuen Eibarrek egun berezi hartako jarrerari esker. Baina 1931ko goiz hura aurtengoa baino askoz ere jendetsuagoa izan zen. Zelan aldatzen den bizitza, kamarada!

II. Errepublikaren lehen urteurrena

OSPATZEKO ERA GUZTIETAKO EKITALDIAK EGIN ZIREN

Ego Ibarra batzordeak bere web orrian jaso duenez, 1932. urtean, Errepublikaren lehen urtea ospatzeko era guztietako ekitaldiak antolatu zituzten: manifestazioa, txirindulariak, dantzaldiak, txangoa Madriler, txistulariak...

Egun hartako ospakizunen ekitaldi nabarmenetako bat Errepublikako Sari Nagusia txirindularitza-lasterketaren lehen edizioa izan zen: *“Nazioarteko proba, hemengoez gain, txirindulari atzeritarrekin osatua. Luciano Montero izan zen garaile 125 kilometroko etapa bakarreko proba hartan (Markina-Ondarroa-Deba- Elorrio-Arrasate-Bergara-Eibar). 1933ko eta 34ko edizioetan ere Montero anaiak izan ziren garaile, 33an Ricardo eta 34an Luciano. 1935 eta 1936an etapetako proba garrantzitsuenetako bat izatera iritsi zen, eta nazioarteko ospea lortu zuen”*.

Ego Ibarrak bildutako informazioaren arabera, *“35eko etapak hauek izan ziren: Eibar-Burgos (171 km), Burgos-Madril (198 km), Madril-Burgos (242 km), Burgos-Eibar (170 km). Irabazlea Salvador Cardona izan zen eta karrerako eibartar bakarrak, Felix Gojenolak, 22. postuan amaitu zuen. 1936ko lasterketak Julian Berrendero izan zuen irabazle, garaiko txirindulari handienetakoa eta ‘Mis glorias y Memorias’ liburuaren egilea. Gerrak moztu zuen betiko Errepublikaren sari hura eta gainerako lorpen guztiak”*.



Eibartarrak pozez gainezka Errebal kalean. 1931/IV/14.
Castrillo Ortuoste Fonda.
Eibarko Udal Artxiboa.



Julian Berrendero.



GAC taldea, F. Gojenola tartean dela. 1928. Funts partikularra.

GAIZKA BILBAO, EIBAR ESKUBALOIA:

“Ezinbestekoa da kirola egitea, burua ahalik eta lasaien izateko”

– Lehenik eta behin, nola daramazu konfinamendua?

Zorionez, irakaslea izanda, lanean jarraitzen dut eta denbora gehiena beteta daukat, aspertzeko astirik gabe oraingoz. Eguneroko lanetik aparte, klubeko betebeharrak ere poliki aurreratzen dihardugunez, egunak nahiko azkar pasatzen ari zaizkit, familiarekin batera.

– Lehen baino kirol gutxiago ala gehiago egiten duzu?

Nire ustez, etxe askotan bezala, gurean ere gora etorri gara eta inoiz baino kirol gehiago egiten dugu. Arrabola dela, pesak direla... egunero gabiltza gorputza mugitzen. Ezinbestekoa dela iruditzen zait zerbait egitea, burua ahalik eta lasaien edukitzeko.

– Eibar Eskubaloiko jokalarri batzuek bideoak eskegi dituzte sarean kirola egiten. Egoera ezezagun honen aurrean, zer esango zenieke Eibar Eskubaloiko neska-mutilei?

Burua lasai edukitzeko; kirola egitea beharrezkoa dela iruditzen zait. Jokalarri gehienak nerabeak dira, energia asko daukate gordeta eta beharrezkotzat jotzen dut energia hori ondo bideratzea. Beste alde batetik, kirolariak gara; beraz, gure gorputzari ahalik eta egoera egokienean eustea funtsezkoa da.

– Noiz uste duzu izango dugula irtetzeko aukera, gure senide eta lagunak aurrez-aurre agurtzeko?

Horren inguruan gogoeta gutxi egiten dut; nahiago dut nahiko errealista izaten saiatu. Uste dut egoerak luze joko duela. Osasuna da lehenengoa, ea nola egin ahal dezakegun orain arte lortutakoari eusteko. Gero ikasleak euren errealitatera itzultzeak garrantzia izango du; helduko da senideak eta lagunak agurtzeko momentua. Oraingoz, eta denbora baterako, besarkada birtualei eutsi beharko diegulakoan gogo.

– Eta orain garrantzitsuena ez bada ere, zelan espero duzu amaituko direla Eibar Eskubaloiko taldeen txapelketak?

Zaila ikusten dut txapelketak amaitzea; Gipuzkoa eta Euskadi mailan ia ezinezkoa. Espainiako Ligan jokatzen dutenek oraindik erabaki baten zain daude, baina ez naiz oso baikorra. Kirolariek denbora beharko dutelako berriz ere martxan jarri eta



maila egoki batera itzultzeko. Gureek ez dakite jokatzen jarraituko duten ala ez: ikasketak eta lanak tartean izanda, ez da erraza esatea. Beste alde batetik, kirol mailako klubaren beharrak aztertuta, ez da unerik onena mugimenduak egiteko, jendearen burua ere nahiko aldrebestuta dagoelako.

– Egoera nola aldatu den ikusita, nola eragingo dio taldeari orokorrean?

Orokorrean, taldeei dinamikan sartzea kostako zaiela uste dut. Aurrendenboraldi modukoa egin beharko dute poliki-poliki berrabiarazten hasteko. Hala ere, taldeak gogotsu etorriko direla uste dut, eskubaloio gosez, eta hori baliatu behar dugu daukagun onena emateko. Normalean ekainean hasten gara klub bezala hurrengo denboraldirako gauzak prestatzen, baina gaur egun bizi dugun egoerak zailtasunak dakarzkigu batez ere.

Amaitzeko, alor guztietan kluba indartzeko lanean ari garela nabarmendu nahiko nuke. Eibarrek goi mailako eskubaloia behar du: eskubaloio zaleek horrela erakutsi digute denboraldi guztian, eta lan horretan gabiltza buru-belarri.

Herriko saskibaloia sustatzaile sutsuenak laga gaitu

Apirilaren 8an hil zen, 49 urterekin, iaz arte Eibar Saskibaloiko taldeko presidentea zen **FERNANDO VALENCIANO**. Urte mordoa eman zituen saskibaloia alde lan egiten, ardurak ere bere gain hartzeraino: Katu Kale babesle nagusia izan zuen KA 1173 Eibar Saskibaloiko presidentea izateaz gain (2003-2004 denboralditik aurrera), ondoren eta gaur egun Avia enpresa babesle duen **Eibar Saskibaloian** kargu bera izan zuen (2018-19 denboraldira arte). Aurretik, jakina, zaletasunari eutsi behar eta jokalaria izan zen, base eta eskolta postuetan jokatzeke. Zaletuen mailan Abejorros taldearekin hasi zen jokatzen, gero Katu Kale izena hartuko zuen taldean. Jarraian federatu egin zen taldea eta 2000. urtean sortutako talde berriak K1173 izena hartu zuen, beti ere Valenciano sustatzaile nagusienetakoa zela. Ametsa eta Katu Kale izan ziren K1173 talde horretako babesleak. Herriko saskibaloia klubak hazkunde handia izan du denbora gutxian eta, ordura arte senior mailako taldea bakarrik izan zuen klubak, 2016an saskibaloia eskola sortzea erabaki zuen. Hurrengo denboraldian infantiletako eta alebiletako talde bana atera zuten, seniorrez gain, iaz apustua ia hirukoiztu eta zortzi talde osatzeraino.

Azken sei-zazpi urteotan, bestalde, **Eibarko Klub Deportiboko squash taldeko jokalaria** ere izan da Fernando, jokoan aurrera egin eta progresioa erakutsita. Gure herriko talde hori Euskadi mailako onenen artean dago, gainera, eta behin baino gehiagotan irabazi ditu hainbat torneo, banaka zein taldeka. Eta, aita moduan, bestalde, oso hartueman estua izan du **Eibar Eskubaloia** taldearekin.

...eta kitto!-k Gabon Zahar egunean urtero antolatzen duen **Eibarko Kirol Sarietan** fin-fin izaten genuen Fernando, gehienetan saskibaloia arloko irabazleari saria banatzen. Orain dela hiru hilabete pasatxoko azken edizioan -gauzak nola diren!- berak jaso zuen saskibaloia arlokoa, presidente berriaren eskutik. Bere betiko klubak urte guztiotan egindako lana eskertu nahi izan zion horrela. Aurretik, baina, jaso zuen beste bat: 2014an squash modalitatean irabazi zuena.



Fernando Valenciano,
Eibarko Kirol Sarietako azken
edizioan saria jasotzen.
Aurreko edizioetan Fernandok
berak banatu zituen.

KLUB DEPORTIBOko zuzendaritzak maiatzeko programazio osoa bertan behera lagatzea erabaki du



Eibarko Klub Deportiboko zuzendaritzak jakinarazi duenez, atzo telematikoki egindako batzarrean, maiatzerako programazio osoa (**Euskal Jaia, Argazkilaritza Maiatzean, mendi irteerak...**) bertan behera lagatzea erabaki du.

Idatziz jakinarazi dutenez, *“ekainetik aurrera ere normaltasun osora itzultzea ezinezkoa izango dela aurreikusten dugu. **Ekainerako programatuta** ditugun Klubaren Eguna, Euskadiko squash txapelketa, dantzari eguna, pilota San Juan saria, mendi irteerak, urpeko ekintzak, Kruzetaren oroimenezkoa xake torneo... osotasunean eta hasieran programatuta genituen baldintzetan ez dira egingo. Arduraz, osasun teknikariek agindutakoa beteko dugu. Normaltasunerako bidean aukera ezberdinak izango direla pentsatuz, seguruenik ez dira baldintza berdinak izango mendi irteera bat egiteko edo dantzari eguna ospatzeko. Beraz, ardura guztiarekin, eta osasuna lehenetsita, normaltasunerako bidean irekitzen diren leihoak baliatuko ditugu”.*

ESKUBALOI irudiak batzeko deia

*“Saso zail hauetan, gure kirol historiari errepaso txiki bat ematea gustatuko litzaiguke, animoa altxatu eta irrifarre goxoak berpizteko. Eibar Eskubaloiak 10 urte beteko ditu hemendik gutxira eta herriko beste talde esanguratsuena (J.D. Arrate) 75 urte betetzeko zorian izango zen. Gure irudien artxiboa handitzea gustatuko litzaiguke, antzinako argazki, bideo eta bizipenekin; guztiek izango dute euren xarma eta balioa. Animatu eta bidali duzuen guztia **komunikazioa@eibareskubaloia.eus** helbidera. Eskerrik asko eta gora EIBAR ESKUBALOI!”.*



Eibar
ESKUBALOI

K.A 1173

Saskibaloiak erakutsi zigun galdutako partidak irabazitakoak adina ospatzen. Izatez, batek dena ematen duenean galtzen denean ere ez dela benetan galtzen. Partida hau goizegi bukatu da, baina saskibaloiak erakutsi zigun hau ere: nahiz eta jokatzeari utzi, bat ez da inoiz erretiratzen.



Konfinamenduan egon arren,

PENTSIODUNEK ez dituzte euren ALDARRIKAPENAK ahaztu

COVID-19ak eragindako egoerak derrigortuta, Eibarko Pentsiodunen Plataformak, beste plataforma guztiek bezala, bertan behera laga behar izan ditu astelehenetako kontzentrazioak. Hala ere, horrek ez du esan nahi pentsio duin eta publikoen aldeko aldarrikapenak albo batera laga dituztenik. Izan ere, internet eta sare sozialak gazteek bezain ondo erabiltzen dituzte eta horien bitartez ari dira pentsio duin eta publikoen aldeko borroka egiten, bakoitza bere etxetik bada ere. Madrilerainoko martxan parte hartu zutenek, adibidez, ez diote kale egiten astelehenetako hitzorduari eta, bakoitzak bere etxetik, Facebook-era igotzen dituzten bideo eta argazkiekin pentsio duin eta publikoen aldeko borrokarekin jarraitzen dute.



UNTZAGAKO JUBILATUEN

jarduera batzuk martxan jarraitzen dute

Untzagako jubilatu etxea itxita egon arren, bertan garatzen dituzten jardueretako batzuk martxan jarraitzen dutela gogorarazi dute zentruko arduradunek. Adindu Gerontologia Zerbitzuak astelehen eta barixakuetan ematen zuen "80 urteak beteta, eman bizitza zure urteei" izenburukoa telefono bitartez egiten ari dira eta, diotenez, parte hartzen ari diren nagusiak oso pozik daude. Horrez gain, Burology entrenamendu kognitiborako programak bere aplikazioa doan eskaintzen hasi da, COVID-19k eragin duen osasun-krisiaren eta alarma egoeraren aurrean, etxe barruan igaro beharreko egun hauek eramangarriagoak izaten laguntzeko. Aplikazio horretan sartzeko eta bertan eskaintzen diren ariketak egiteko interesa dutenek baliabide propioak izan beharko dituzte (tabletak, ordenagailuak, gailu mugikorrak) eta 679052651 edo 943177245 telefono zenbakietara deitu beharko dute, azalpenak jasotzeko.



Burology teknologia berriei egokitutako entrenamendu kognitiboaren programa da eta *"bertan parte hartzeko interesa dutenek gaitasun mentalei egokitutako ariketen bitartez entrenatu eta ondo pasa ahal izango dute"*. Ariketak edozein tokitatik landuz, burua sasoiari mantendu ahal izango dute. Bestalde, Untzagako jubilatu etxeko zuzendaritzak jakinarazi duenez, bazkideek zerbait galdetu nahi izanez gero, Whatsapp bidali (665847446) edo posta elektronikora idatzi dezakete (jubiletxeuntzaga@gmail.com) eta erantzuten ahaleginduko dira.

Gerritek
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

**Marka guztietako
ZERBITZU TEKNIKOAK
eta SALMENTA**



**Neurrira
egindako
software-aren
garapena**

FUNEUSKADI
Grupo Asistea

FUNERARIA
MUGICA
Funeuskadi



**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com**

Eibar:
Otaola, 27

Elgoibar:
Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

151 eibartar gehiago langabezian martxoan

Martxoko langabeziak datu negatiboak eman ditu Debabarrena eta 151 eibartar gehiago dago langabezian (otsailean 1.591 zeuden eta martxoan 1.742). Horrela, langabezia tasa %1,18 igo da, %12,49tik %13,67. Eibar izan da langabezian igoera handiena izan duen herria Debabarrenan eta bigarren langabezia-tasa altuena du Soraluzeren atzetik.

OTSAILA	Langabeak	Langabezia-tasa
Eibar	1.591	%12,49
Deba	182	%6,83
Elgoibar	525	%9,49
Mendaro	78	%7,89
Mutriku	236	%8,87
Soraluze	241	%2,86
Debabarrena	2.853	%10,78

MARTXOA	Langabeak	Langabezia-tasa
Eibar	1.742	%13,67
Deba	201	%7,54
Elgoibar	550	%9,95
Mendaro	82	%8,29
Mutriku	237	%8,91
Soraluze	259	%13,82
Debabarrena	3.071	%11,61



Hasi dira zabor organikorako pedaldun edukiontziak ipintzen

Hilabete honetan hasi dira Debabarreneko Mankomunitatekoak zabor organikorako kontenedoretan pedalak ipintzen, Udalak hala eskatuta. Herritarrek askotan eskatu duten arren, ezin izan diote eskaerari orain arte erantzun, diotenez, *“irekitze-sisteman txipa eta pedala konbinatzen zituen edukiontzirik ez zegoelako merkatuan, baina Mankomunitateak horiek eskura ditu dagoeneko, eta Eibarko auzoetan ezartzen hasi da hilabete honetan”*. Azpimarratu dutenez, neurria une ezin aproposagoan ailegatu da, sistema berriari esker ez delako heldulekurik ikutu behar eta, beraz, COVID-19ren hedapena oztopatzen du.

Oraingoz, pedala duten edukiontziak kale hauetan ipini dituzte: Ipurua, 1; San Kristobal, 25; San Kristobal, 10; Sostoatarren, 10, Urki, 2; Urki, 17; Urki, 27; J.A. Iturrioz, 1; Polonia Etxeberria, 19; Polonia Etxeberria, 24; Eibarko Txikito, 12; Miguel de Aginaga, 5; Txaltxa Zelai, 2ac; Txaltxa Zelai, 24; Bista Eder, 8; Errekatxu, 11; Txonta, 2; Txonta, 17; Txonta, 42; Urtzaile, 2; Barrena, 8; Barrena, 21; Barrena, 22; Barrena, 34; Barrena, 40; Murrategi, 2; Azitain-Bide, 4; Ubitxa, 3; Ubitxa, 16; Indalezio Ojangueren, 1; Egigurentarren, 1; Jose Antonio Gisasola, 8; Isasi, 22; Untzaga, 7; Fermin Calbeton, 4; Errebal; Julian Etxeberria, 1; San Juan, 1; San Juan, 9; Ego-Gain, 5; Ego-Gain, 6; Egazelai, 6; eta Ardantza, 11.

ELI GOMEZ, INGELES IRAKASLEA:

“Ikasle bakoitzarentzat klase oso pertsonalizatuak eskaintzen ditut”

– Nola moldatzen zinen ingeles akademian alarma egoera hasi aurretik?

Akademia Sostoa kalean dago eta alarma egoera ezarri aurretik han ematen nituen klaseak.

– Eta alarma egoera ezarri ondoren, nola moldatu zara?

Nahiko prozesu arraroa izan da. Martxoaren 12 inguruan egoera larriagotzen joan zen, eskolak itxi zituzten, zurrumurruak entzuten ziren... “*Eta zer egingo dut nik?*”, galdetu nion neure buruari. Martxoaren 12a eta 13a oso egun txarrak izan ziren niretzat. Ezintasuna sentitzen nuen eta malkoak irteten zitzaizkidan. Aukera ezberdinak aztertu nituen eta internet bitartez klaseak emateko balio duten programak aztertu nituen. Zer egin asko pentsatu eta gero, aurrera egin behar nuela erabaki nuen. Zirt edo zart. Hizkuntza akademia handiek egiten dutena ikusi nuen eta, nire neurrian, martxan jarri nintzen, alabaren laguntzarekin.

– Nolako izan zen ikasleen erantzuna?

Zoragarria. Eurekin eta gurasoekin berba egin nuen banan-banan, eta %90ak jarraitzen du. Gurasoek esaten didate seme-alabak ingelesez klaseak noiz hasiko diren zain egoten direla.

– Nolako ari da izaten zuen arteko hartu-erama?

Klaseak Skype bitartez egiten ditugu, aurrez aurre egiteko, baina beste programa edo aplikazio batzuk erabiltzen ditut baita ere: helbide elektronikoa (mezuak bidaltzeko), Google Drive (dokumentuak partekatzeko), WhatsApp...

– Klaseen dinamika asko aldatu da formatu berri horretan?

‘Ikasles’-en talde murrizetan egin dut lan beti, ikasleei laguntza indibiduala eskaini nahi dietelako. Oso klase pertsonalizatuak izaten dira, ikasle bakoitzaren beharrak asetzeko. Beraz, gehienez zortzi lagunekoko taldeak osatzen ditut (5-6 normalean). Orain, taldeak gehiago estutu behar izan ditut, gehiago pertsonalizatzeko. Internet bitartez lehengo dinamika bera jarraitzen dugu eta, alde onei begira, ikasleek ordutegi malguagoa dute orain, ezin dituztelako hainbat gauza egin (kirola eta abar). Bestetik, kurso guztietarako errepasso dokumentu batzuk prestatu ditut. Adibidez, DBHko 1. mailakoek zer ikasi duten, zer ari diren ikasten eta zer ikasi behar duten. Ez dut nahi ikasleek ezer galtzea.



– Pozik zaude lortutakoarekin?

Ezin naiz kexatu, klaseak ematen jarraitzen dudalako, baina nahiko gogorra izan da. Hasieran ezin nuen lorik egin, lan asko egin behar nuelako eta burua etengabe bueltaka nuelako. Erronka handia izan da, baina asko ikasi dut eta etorkizunerako baliagarria izan daiteke. Nahiko izaera positiboa dut eta nire kasuan aurrera egin ahal izan dut, baina askok ez dute aukera hori izan eta negozioa itxi behar izan dute. Orain guztiok elkarrekin egin beharko dugu aurrera.

– Erakundeen aldetik laguntzarik jaso duzu egoera honetan aurrera egiteko?

Gipuzkoako Foru Aldundiak eman behar zituen ‘bono teknologikoak’ eskuratu nahi nituen, baina ez nuen aukerarik ere izan, baina atera bezain laster amaitu egin ziren-eta. Bi mezu elektronikoa bidali nizkien eta ez dut erantzunik jaso. Lehen mezuarekin informazioa jaso nahi nuen; eta bigarrenean, laguntzak amaitu zirela ikusita, horren arrazoia jakin nahi nuen. Baina ezer ez. 450.000 euroko partida zen, enpresa txikiek eta autonomoek etxetik lan egin ahal izateko. Nork lortu du laguntza hori? Mila laguntza emango dituztela esan dute erakundeek, baina ez dut laguntzarik jaso duen inor ere ezagutzen.

Enpresa, autonomo eta lan bila ari direnentzat AHOLKULARITZA ZERBITZUA ipini dute martxan Debegesan

Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak telefono bidezko aholkularitza eta orientazio zerbitzu berria jarri du martxan, COVID-19 pandemiarengatik kaltetuta dauden enpresa, autonomo eta lan bila ari direnei laguntzeko. 699 76 71 57 telefono zenbakira deituz gero, lana bilatzen ari direnek horretarako laguntza eta orientazioa jaso dezakete (kurrikuluma hobetzeko aholkuak, enplegu-atarien inguruko informazioa...). Eta 687 47 65 05 telefonora deituta, berriz, koronabirusa dela eta, enpresa eta autonomoentzat ateratzen dituzten laguntza berezien inguruko informazioa jaso eta eskaerak tramitatzeko laguntza eska daiteke.

Bi telefono zenbakiak astelehenetik barixakura bitartean egongo dira operatibo, 09:00etatik 14:00etara. Bestalde, telefono deiak hartzeaz gain, bi zenbakietan WhatsApp bidezko mezuak ere erantzungo dituzte. Eta, nahiago izanez gero, posta elektronikoa erabil dezakezue: lana bilatzeko orientazioa behar izanez gero, enplegua@debegesa.eus helbidera idatzi; eta, enpresa edo autonomoa izanez gero, ekintzaile@debegesa.eus helbidera mezua bidalita eska dezakezue aholkularitza zerbitzua.

Debegesak, bestalde, eskualdeko biztanle eta enpresei ahalik eta zerbitzurik onena emateko etxetik lanean jarraitzen duela gogorazi nahi du eta, horrekin batera, bere ohiko kanaletan (sare sozialetan, www.debegesa.eus web orrian eta 943 820 110 telefono zenbakian) informazio eguneratua ematen jarraituko duela jakinarazi du.



Hazilan Express egitasmoa jarri du martxan Debegesak

Langabezian dauden pertsona kualifikatuei lana lortzen laguntzeko programa da Hazilan, azken urteotan martxan egon den egitasmoa. Kasu honetan, ordea, lan bilaketa prozesua banaka egingo da. *“Hazilan Express programa berri honetan banakako aholkularitza egingo da eta, egoera aldatzen ez den bitartean, telematikoki izango dira saioak”.*

Hazilan programan parte hartu nahi dutenek hainbat baldintza bete behar dute:

- 20 eta 44 urte bitartean izatea.
- Unibertsitate titulu ofiziala edo goi mailako prestakuntza eginda edukitzea.
- Langabezia egoeran egotea edo ikasketekin bat datorren lana lortu nahi izatea.
- Debabarrenako biztanleek lehentasuna izango dute.

Zabor organikorako poltsak hainbat dendatan jaso daitezke

Udalarekin koordinazio-lana egin eta gero, Debabarreneko Mankomunitateak zabor organikorako poltsa biodegradagarriak banatu dizkie herriko hainbat elikagai-dendari, alarma-egoerak irauten duen bitartean eibartarrek etxetik gertuen duten tokian jasozeko aukera izateko. Horrez gain, Untzagan eta Orbea kiroldegian dauden makinek zerbitzua ematen jarraituko dute (Orbea kiroldegikoa kanpoaldean jarri dute, jendeak erabili ahal izateko).

Hauek dira poltsa biodegradagarriak banatuko dituzten dendak:

- Vila janari-denda (Urki, 11)
- Txaltxa Zelai 16an dagoen janari-denda
- Mandia fruta-denda (Bista Eder, 13)
- La Pera fruta-denda (San Kristobal, 1)
- Larrañaga harategia (R. Galdos, 12)
- Bilbeando fruta-denda (Isasi, 33)
- La Pera fruta-denda (F. Calbeton, 12)
- Artamendi harategia (Bidebarrieta, 12)
- Oberena harategia (Bidebarrieta, 20)
- Udare fruta-denda (Julian Etxeberria, 8)
- Izar-Bide denda (Julian Etxeberria, 13)
- Prentsa kioskoa (Urkizu, 6)
- Mujika harategia (Urkizu, 18)
- Genoveva arraindegia (Txonta, 1)
- Azitaingo gasolindegia (Barrena, 19)
- Iñaki Rezola harategia (Ibarkurutze, 23)
- Villalba supermerkatua (San Juan, 9)
- Gozoki okindegia (Sostoa, 2)
- Zubizarreta okindegia (T. Anitua, 6)
- Orbea makina (Untzagako taxi geltokia)
- Jardañeta janari-denda (Jardañeta, 12)
- Pablo harategia (T. Anitua, 7)
- Txema janari-denda (T. Anitua, 9)
- Marina dendaa (T. Anitua, 23)
- Begoña Ruizen denda (T. Anitua, 31)



Txakurren gorotzak biltzeko poltsak ere bai

Materia organikorako poltsa biodegradagarriak eskaintzen dituzten Eibarko hogeit hamar establezimendutan txakurren gorotzak biltzeko poltsak ere izango dira. *“Egunero irekitzen diren saltoki hauetan poltsak banatzearekin bermatu nahi da alarma-egoerak irauten duen bitartean eibartarrek poltsak jaso ahal izatea, Untzagara joan behar izan gabe, etxetik gertuen duten lekura joanda”,* dio Udalak.



Lau lagun gehiago ari dira Eibarren garbiketa eta desinfekzio lanetan

Eibarko kaleetan garbiketa lanak egiten dituzten udal brigadako langileen kopurua 7tik 11ra igo da, “desinfekzio-lanak bermatzeko, bai Eibarko erdigunean, bai auzo guztietan”. Aste Santuko jaiegunetan ere lanean jardun zuten, modu intentsiboan, 07:30etik 14:00etara.

Orain dela hiru aste baino baino gehiago da Udalak Udal Lantaldearen beharginen lana berrantolatu zuela, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean ildo horretan lan egiteko. Lanak hasi zirenetik, desinfektatze-lanak egiten ari dira sodio-hipokloritoarekin (tokiak desinfektatzeko eraginkortasun handiko konposatu kimikoa) kontaktu gehien duten azalera edo azpiegiturretan: hala nola, baranda, esku-del, igogailu, eskailera eta hondakinen edukiontzietan.

Eibarko Udala Debabarreneko Mankomunitatearekin koordinatzen ari da, desinfekzioa ahalik eta osoena eta sakonena izan dadin. Izan ere, Mankomunitatea, bere aldetik, egunotan jende gehien pilatzen ari den guneeetan ari da lan horiek egiten, hala nola ospitale, supermerkatu eta espaloi inguruetan eta baita edukiontzietan ere.

Hasieratik, langile guztiak beharrezko babes-ekipamendu guztiarekin dihardute zereginean, lanak segurtasun osoz egin ahal izateko.



...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua

**Konfinamendu-aldian
itzulpenak egiten
jarraitzen dugu**

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkarte@etakitto.eus



Bi hilabete eta gero, Euskal Herri osoan gogoratu zen Zaldibarren gertatutakoa

Apirilaren 6an bete ziren bi hilabete Zaldibarko Eitzaga auzoan hondakindegia amildu zenetik eta Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze, bertako langileak, zabor azpian lurperatuta desagertu zirenetik. Horrekin inor ahaztu ez dadin, egun horretarako ekimen bateratua deitu zuen Zaldibar Argitu plataformak. Leihoetara irten eta, herritar guztiak burrunbada egitera deitu zituen eta, jarraian, desagertuta dauden bi langileak gogoratzeko kandela bi pizteko eskatu zuen. Ekimenak Euskal Herri mailako oihartzuna lortu zuen eta jende ugari egin zuen bat protesta egiteko deialdiarekin. Ez zen hori izan, ordea, gertatutakoa gogoratzeko ekimen bakarra. Izan ere, bezperan aurkeztu zuten "Zaborrezko Munstroa" izeneko kantua, herri plataformako kideek bultzatuta hainbat musikaririk (gehienak eibartarrak) egindako kantua eta bideoklipa: Miren Narbaizak eta Kokeinek sortu dute musika, hi-



tzak Txakur Gorriak egin ditu eta, ahotsetan, berriz, musikari ugari hartu dute parte: Zaloea (Kokein), Malen (Txakur Gorria), Miren (Mice), Aitor (Su Ta Gar) eta Maite (Mursego). Koroetan, berriz, David Karba eta Jokin Bergara aritu dira.

Otsailaren 6an amildu zen Verter Recycling enpresaren hondakindegia, bi langileak desagerrarazita eta, erreskate eta bilaketa lanak egunean bertan hasi zituzten arren, gaur arte ez dute gorpurik aurkitu. Bestalde, martxoaren 14an, alarma egoera ezartzearekin batera, bilaketa lanen erritmoa moteldu egin zen, hilaren 30ean Espainiako Gobernuak bilaketa lanekin segitzeari baiezkotzea eman arte.

Ezbeharrak gertatu zela bi hilabeteak betetzeko ordu batzuren faltan itxaropen izpi txiki bat piztu zitzaion askori, Zaldibarko zabortegean bilaketa lanak egiten ari den taldeak Alberto Sololuzeren ibilgailua aurkitu zuela jakinarazi zutenean, baina automobilaren az-tarnak, besterik ez ziren agertu.

Gaur 'Zaldibar, argi eta garbi' hitzaldia on line

Konfinamendua dela eta, Zaldibar Argitu plataformaren jarduerak kaletik sarera salto egin behar izan du eta, kasu honetan ere, internetek eta sare sozialek aparteko pisua hartu dute egunotan. Gaur bertan, internet bitartez emango du 'Zaldibar, argi eta garbi' hitzaldia Ekologistak Martxan elkarteak, 18:00etan

Iñaki Antiguedad EHUKo katedradunak eta hidrogeologoak, Maialen Ferreira El Diario Norte hedabideko kazetariak eta Carlos Arribas Ekologistak Martxan elkarteko kideak arituko dira Zaldibarko zabortegearen inguruan berba egiten eta, hitzaldiak jarraitzeko, <https://labur.eus/zaldibar17apirila> helbidera jo beharko da.

ZABORREZKO MUNSTROA

Zaborrezko munstroak oka egin digu, gauak dira suzkoak gezurra ari du.

Sortu dugun pozoia datorkigu bueltan, ez da kabitzen lohia alfonbra azpietan.

Nondik dator usaina? Zenbat hitz karratu... Ez da arriskurik baina, leihoak zarratu.

Herriak Joaquin, Alberto gertuko, etxeko behar ditu Zaldibar argitu!

Herriak erantzunak, erantzukizunak behar ditu Zaldibar argitu!

Bizitza omen zen handiena baina agian ez guztiena.

Gorbata mugimendu aberats poseak, miseria sortzen du botere goseak.

Herriak erantzunak, erantzukizunak, Joaquin, Alberto gertuko, etxeko behar ditu Zaldibar argitu!



ZALDIBAR
Argi eta garbi

Apirilak
17
Abril

ON LINE

IÑAKI ANTIGUEDAD Hidrogeologoa eta EHUko katedraduna
Zaldibarko krisiaz gogoeta tekniko-politiko (Eus - Cas)

MAIALEN FERREIRA El Diario Norte-ko kazetaria
Komunikazioa, zabortegiaren krisiaren aurrean (Eus - Cas)

CARLOS ARRIBAS Hondakinen arloko arduraduna, "Ecologistas en Accion" erakundearen
Zabortegiek eragindako ingurumen inpaktuak (Cas)

LOTURA: <https://labur.eus/zaldibar17apirila>
ORDUA: 18:00

Eitzagako bizilagunak kamioien etenbariko trafikoarekin haserre

Zaborteia erori zenetik bi hilabete igaro direla ikusita, Zaldibarko Eitzaga auzoko bizilagunek idatzizko adierazpena zabaldu zuten, "erakundeek bizilagunen gutxieneko eskakizunetik duten pasibotasuna ikusita" euren haserrea plazaratzeko asmoz. Joaquin eta Albertoren familia eta lagunekiko elkartasuna eta babes osoa adierazita eta administrazioari bilatze lanetan ahalegin eta interes handiagoa jarri dezan eskatuta hasten den adierazpenean, bizilagunek kamioiak euren etxeen aurrean "etengabe pasatzeari, lanak amaitzeko epeei eta zabortegiaren gaineko planei buruzko informazioa" exijitzen dute: "Esan ziguten denbora-tarte labur batean, bi astez, guztiz beharrezkoa zela kamioiak auzotik igarotzea, desagertuak bilatu eta zaborteia egonkortzeko lanak egingo zirela sarbideak egokitzeko. Tona askoko dozena bat kamioi orduoro pasatzea jasan behar dugu egun osoan zehar, egunean 100 kamioi baino gehiago dira. Horri gehitu behar zaizkio azpikontrataturiko enpresa mordoa, suhiltzaileak, Ertzaintza... Hori guztia, ibilgailuentzat eta, are gutxiago horrelako kamioientzat gaizki egokitutako errepide batean". Gauzak horrela, zirkulazio guztia lehenbailehen Olarreaga aldera pasatzea eskatzen zuten hilaren lehen egunetan zabalduz idatzian, "Elena Moreno sailburuordeak duela hilabete Eitzagako auzokideekin egindako bileran hitz eman zuen bezala". Horrekin batera, Eitzaga auzoko bizilagunei azterketa medikoak eta ura eta lurrei buruzko azterketa zehatzak egitea ere eskatzen dute.





UEUren eskaintza ere egoera berrira moldatzen

Larrialdi egoera dela-eta, martxoko eta apirileko aurrez aurreko saioak eten egin zituen Udako Euskal Unibertsitateak, baina, hala ere, udaberrirako eskaintza osatzeko lanean jarraitu dute eta maiatza eta ekainerako hainbat ikastaro prestatu dituzte. Eibarren bertan emango dituztenak “Emozioen kudeaketa sakonean” eta “Bizidun bila I. Non daude eta nola ikus ditzakegu? Odonatu, tximeleta, anfibio eta narrastiak” dira eta, horrez gain, “Material didaktikoaren sorruntza tresna askeak erabiliz” izenekoa on line eskainiko da. Ikastaro hauetarako izen-ematea zabalik dago. Horrez gain, momentuz 48. Udako Ikastaroetarako behin-behineko eskaintzari eutsiko diotela azaldu dute, *“uda garaiko agertokia berezia izango dela jakin badakigu ere”*. Zerrenda osoa www.ueu.eus/ikasi/udako-ikastaroak helbidean ikus dezakezue.

Irakaskuntza Masterrera aurrematrikula zabalik

Eta datorren ikasturteari begira, UEUK, UPV/EHUren zentro atxiki gisa, euskaraz eta online eskainiko du Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. 2020/21 ikasturtean emango duten master honek DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle eta hizkuntzen irakasle izango direnak prestatzea du helburu. Online modalitate honetan, eskolak Ikasgela Birtualaren bidez emango dira. Ikasketak burutu eta ebaluatzeko behar dituen tresna eta baliabide guztiak eskura izango ditu uneoro bertan ikasleak.

Modalitate honek, gainera, Berrikuntza Ikasgelan hautazko ibilbidea eskainiko du: berrikuntza eta ikerkuntza ardatz dituen ibilbidea izango da, ikasleak aukuratutako hezkuntza zentroan burutuko duena modu praktikoan.

Ondoko espezialitateak eskainiko dituzte: Natur Zientziak eta Matematika, Giza eta Gizarte Zientziak eta Hizkuntza eta Literatura. Guztira, 120 plaza eskainiko dituzte (40 espezialitate bakoitzeko) eta aurrematrikula egiteko epea zabalik (maiatzaren 25era arte). Informazio guztia eta izena emateko helbidea www.ueu.eus/ikasi/masterra da.

Bi eguneko greba digitala deitu dute kultur sortzaileek

Koronabirusaren hedapenari aurre egiteko neurrien eraginez, Euskal Herriko kulturgintza egoera larrian dagoela ikusi dute hainbat sortzailek eta, hori dela eta, apirilaren 21ean eta 22an greba digitala egiteko deia zabaldu dute 550 kulturgilek baino gehiagok. Bi egun osoz ez dute Interneten kultur edukirik partekatuko, eta sektorearentzako neurri espezifikokoak hartzeko deia egin diete erakunde publikoei. www.kulturgintzan.eus orrialdean zabaldu dute egoerari buruz egiten duten irakurketaa, eta bertan topa daiteke deialdiarekin bat egiteko bidea ere. Euren berbetan, *“desagertu egingo gara, oihala beheratuko dugu eta sareetan zein hedabideetan ez dugu inongo ekimenik egingo, ez dugu zuzeneko edo grabatuko emanaldirik ez eskainiko ez partekatuko”*.

Sinatzailen artean izen ezagun asko daude: Maialen Lujanbio, Iraia Elias, Ruper Ordorika, Eider Rodriguez, Gorka Urbizu, Fermin Muguruza... Diziplina guztietako profesionalek egin dute bat greba deialdiarekin: bertsolariak, musikariak, idazleak, aktoreak, arte hezitzaileak, artistak, aktore elkarteak, dantza taldeak, kultur kudeatzaileak, dantzariak eta kultur aretoak. Greba deitzaileek esan dutenez, itxialdiak bertan behera laga ditu ehunka kultur ekitaldi, eta horrek eragin dien kaltea handia dela azpimarratu dute: *“Lehendik kulturgileen, sortzaileen zein artisten egoera nahiko prekariora bazen, jazoera berri honek larrialdia areagotzea ekarri du”*. Hori dela eta, kalte hori leuntzeko neurriak eskatu dizkiete erakundeei.





– IRITZIA –

EDUARDO G. LANGARICA (Medicus Mundi):

Desberdintasunak Covid19-aren aurrean

XXI. mendean, ia Erdi Arokoa den mehatxu bati egin behar diogu aurre: pandemia global bati, mugak erraz zeharkatzen dituen birusari, lurralde-mugarik ez duena eta, hala ere, ia erabateko isolamendura behartzen gaituena familia unitateetan edo bizileku partikularretan, zeina beharrezko izanik ere baden nolabaiteko inkongruentzia.

Egoera honek ziurgabetasunez betetzen gaitu, zalantzazko egoeran jartzen, eta horregatik da zailagoa aurre egiten. Covid19ak eragindako krisiak batez ere oinarritzko ondasunen krisiari, funtsezkoenari (bizitza berari), aurre egitera behartzen gaitu. Krisi honetan osasuna da lehenetasuna, bera baita ezinbesteko baldintza beste edozertarako, gainontzekorako aukera irekitzen duena. Horregatik, orain dagokigu profesionalen lan egiten uztea, une honetan agintzen dutenen eskaerei men egitea, eta iritsiko da kontuak eskatzeko ordua, egoera honetara nola iritsi garen eta honetatik ateratzeko zer egin den argitzeko. Hau esateak ez du kentzen, egoerak dirauen bitartean, oraintxe bertan gertatzen ari direnak aztertu ahal izatea.

Interdependentzia eta zaurgarritasuna

Lehenik onartu behar duguna da, nere ustez, birus honek aurrez jartzen gaituela interdependentzia globalarekin, batetik, eta bestetik gure zaurgarritasunarekin. Azken honek ikusarazi behar digu

izaki behardunak garela, indibidualitateak eta indibidualtasunak espeziea akabatuko dutela, gure espeziea eta planeta akabatzen ari direla, eta zaurgarritasun horrek egiten gaitu interdependiente gure gizarte txikietan eta gizarte globalean. Esan genezake birusak denok berdin tratatzen gaituela, denok jartzen gaituela gaixotzeko zorian, hurbileko norbait galtzeko arriskuan. Birusak erakusten du giza komunitatea hauskorra dela, eta denetan hauskorrenak direnak (adinekoak eta gaixoak) –ondorio okerrenak ziurrenik jasango dituztenak– hainbat gobernuak jo puntuan jartzen hasiak dituzte etorriko den krisi ekonomikoaren errudun egiteko, eta finantza ekonomiaren aldarean sakrifikatu nahiko dituzte.

Desberdintasuna

Bestalde, desberdintasun sozial eta ekonomikoak ziurtatuko du, ezin bestela, birusak diskriminazioa egitea. Birusak berez ez du egingo, baina gizateria horretan ari gara ziur aski. Nazionalismoa, arrazakeria, xenofobia eta kapitalismo terminala goranzko indarraldian, irudika dezakegu mundu bat non europar bizitzak beste guztien gainetik balioesten diren. Balioespen hori ikusten dugu indarkeriaz garatzen EBren mugetan (hormak, hesiak, berehalako itzulketak eta giza eskubideak bortizki murriztea) eta EBren barruan ipar eta hegoaldeko herrialdeen arteko diskriminazioekin.

Ziurrenik Covid19aren bidezko infekzioak gehiago joko du, larriago eta hilgarritasun handiagoarekin jende babesgabeena, eta horiexek izango dute aukera mugatuena diagnostikoak eta tratamendu kalitatezko eta egokienak eskuratzeko –nahiz eta infekzioarentzako tratamendua gaur-gaurkoz oso mugatua den–. Osasunaren determinatzaile sozialek eragiten dute gizarte talde babesgabeenek afekzio eta gaixotasun kroniko gehiago pairatzea, eta egoera horrek Covid19agatik larriki gaixotu eta hiltzeko arriskuan jartzen ditu; gainera, aurreikusi daiteke ezen osasun sistema nazionalan arreta berdintasunez jasotzeko aukerarik ez dagoenean, giza talde horiek are eta kaltetuagoak izango direla gaixotasun hau eta beste batzuk diagnostikatu eta tratatzeko atzerapenengatik. Azkenik, eta oso kontutan hartzekoa jende asko izango baita kaltetua, giza talde sozialki babesgabeenek nozituko dituzte gehien krisi honen eragin ekonomiko eta sozialak.

Bada beste alderdi bat izurriteetan oharrematen dena eta Ebolaren krisiaren tratamenduan ere nabarmendu zena: mundu osoan Covid19ak eragindako kasuak ugalduta ahala osasun arreta sistemak gainkargatzen ari direlarik, beste gaixotasunen arta medikua atzeratu egiten da, eta atzerapen honek hainbat gaixotasun kronikoren morbiditatean eta hilkortasunean eragiten du. Honi gehituz gero Lehen Arretako zentroen itsiera bertako profesionalak kanpaina ospitaleetara bidaltzeko, Madrilen kasu, ondorioa izan liteke gaixoak etxean bertan ez artatzea, hori baita modurik hoberena ospitale zerbitzuen lan karga arintzeko.

Genero ikuspuntua

Naiz eta badirudien Covid19ak gehiago hiltzen dituela gizonezkoak, ez da askorik aipatzen emakumearen egitekoa pandemian. Batetik, medikuntza sektoreko plantiletako %70 emakumeak dira, OME Munduko Osasun Erakundeak dioenez; baina Covid19aren aurkako estrategiak erabakitzen diren erakundeetan ordezkariak eskasa dute, The Lancet agerkariak argitaratu emandako artikulua batek dioenez: “Covid19: epidemiaren eragina generoaren arabera”. Irabazi asmorik gabekoa den eta osasungintza arloan aukera berdintasuna sustatzen duen Global Health 50/50 kolektiboaren azken txostenaren arabera, gizonen esku daude mundu zabaleko osasun erakunde zuzendaritzen %70. Halaber, emakumeak dira haurren, adinekoen eta mendekoen zaintzen arduradun lehenak, eta beren ahultasun ekonomiko areagotu egiten da

izurriteak eragindako finantza krisiarekin; zirkuntantzia hau kontuan hartu beharko da etorkizunean erabaki beharko diren neurri ekonomikoetan. Era berean, “froga ebidenteak” daude prekaritate ekonomiko eta ezegonkortasun sozialen garaietan genero indarkeriak eztabaida egiten duela etxeko eremuan. “Izurritea sekulako eragina izaten ari da” dio Txinatik Wan Feik, zeina den Jingzhouko indarkeriaren aurkako elkarte baten fundatzailea, Hubei probintzian. “Tratu txarreatatik salaketak hirukoiztu egin dira otsailean, eta gure estatistiken arabera kasuen %90ek zerikusia dute Covid19arekin”. Frantzian, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estatu Idazkariak egiaztatu du ezen berrogeialdian tratu txarren aurkako telefonora egindako deiak egunean 1600 eta gehiago izate-tik 200 soilik izatera igaro direla, eta ez tratu txar-rak gutxitu direlako, baizik eta emakume tratu txar-jasandakoek zailagoa dutelako deitzea. Pandemia honek genero-erabakietan izango duen inpaktua berandu baino lehen aztertu behar da, neurri egokiak hartu ahal izateko.

Iragan hurbileko izurriteek irakatsi digute: generoa albo batera utziko duen ikuspegiak, gehi aginte gelatan emakumeek duten presentzia urriak, egiten dute halako egoera larrietan gehiago nabarmen-tzea gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak, azken hauek direlarik kaltetuenak. Nola Ebolaren krisian hala Zikarenean, adibidez, sexu eta ugalketa osasun kontsultak murriztu egin ziren, ondorioa izan zelarik amen heriotza tasa gehitzea eta emakumeen sexu eta ugalketa eskubideak murriztea.

Elkartasuna eta konpromiso globalak

Azken ideia bat atera beharko genuke krisi hone-tatik, eta da mundu bat eskatzea non osasun poli-tika bizitza guztiekin egongo den konprometituta, non merkatuak medikuaren gainean duen kontrola desegingo den, ez dezan berak erabaki nork me-rezi duen arreta jasotzea eta nor bazterrera utziko, gaixotasunean eta heriotzean, non inolaz ere ez den onartuko batzuk bizitza salbatu ahal dien txerto bat eskura izatea eta besteei horixe bera ukatzen zaien, ordaindu ezin dutelako edo eta aseguru mediko egokirik ez dutelako.

Politika honek, halaber, herrialde guztien arteko elkartasuna ezarriko luke, arreta mediko unibert-salarekin konprometituta, eta, ondorioz, arreta medikorako nazioz gairako politika bat ezarriko luke, berdintasun ideia hauek gauzatzearekin konprometituta.


farmaziak

- Barixakua 17
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Zapatua 18
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Domoka 19
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 20
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Martitzena 21
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Eguaztena 22
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguena 23
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 24
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Zapatua 25
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Domoka 26
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 27
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI -2020AN-
Barandela (Z. Agirre, 4)



Zorionak, LUCA, martxuaren 22xan 4 urte egin zenduaz-en-eta. Guztion partetik.



Zorionak, MARCO!!! 3 urte bete dozuz, txapeldun! Musu haundi bat aitta, ama eta etxeko guztien partez.



Zorionak, AMETS, martxuaren 24an 11 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo pilla bat famelixak eta, batez be, Hodei eta Bihotzek.



Zorionak, IRAIA, apirilaren 9xan 6 urte bete zenduaz-en-eta. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, IRAIA, martxuaren 17xan 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

FERNANDO VALENCIANO



“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”
EZ ZAITUGU AHAZTUKO

“Eibar tiene un once”-ko zure lagunak



FERNANDO VALENCIANO YEBRA

(2020KO APIRILAREN 8AN HIL ZEN, 49 URTEREKIN)



Eskerrik asko urte hauetan eskaini diguzun guztiagatik

Eibarko Klub Deportiboko SQUASH TALDEA



		7	5			2		9
	5	2	4			7		
	2	6		9				7
3				6				1
4				7		6	2	
		8			6	5	1	
7		3			2	8		

EMAITZA

5	6	1	9	4	8	3	7	2
7	4	3	1	5	2	8	6	9
2	9	8	7	3	6	5	1	4
4	8	9	3	7	1	6	2	5
3	7	8	2	6	4	9	8	1
1	2	6	8	9	5	4	3	7
8	5	2	4	1	9	7	6	3
6	1	7	5	8	3	2	4	9
9	3	4	6	2	7	1	5	8

5	2	7				1		
	4							1
9	8					4		5
7	6		1		9			
			5		8		4	7
1			3				7	9
	7						6	
			7			1	5	4

EMAITZA

8	3	6	7	9	2	1	5	4
2	7	9	4	1	5	3	6	8
1	5	4	3	8	6	2	7	9
3	1	2	5	6	8	4	7	9
4	9	5	2	7	3	6	8	1
7	6	8	1	4	9	5	2	3
9	8	1	6	2	4	7	3	5
6	4	3	9	5	7	8	1	2
5	2	7	8	3	1	4	9	6

SUDOKUZ SUDOKU

			2	8		6	4	
				4	6			
2								1
6			4					3
		7				8		
8					9			5
	1							7
			3	7				
	8	3		2	5			

EMAITZA

7	8	3	6	2	5	1	9	4
4	2	9	3	7	1	5	8	6
5	1	6	8	9	4	2	3	7
8	3	1	7	6	9	4	2	5
9	4	7	5	3	2	8	6	1
6	5	2	4	1	8	9	7	3
2	6	4	9	5	7	3	1	8
3	9	8	1	4	6	7	5	2
1	7	5	2	8	3	6	4	9

8			4	9				
4					6	9		
1	2		8			4		
6	8		5	4			7	
	7			1	2		8	6
		6			7		5	4
		8	6					2
				8	4			3

EMAITZA

7	9	5	2	8	4	6	1	3
3	4	8	6	5	1	7	9	2
2	1	6	9	3	7	8	5	4
9	7	4	3	1	2	5	8	6
5	3	1	7	6	8	2	4	9
6	8	2	5	4	9	3	7	1
1	2	9	8	7	3	4	6	5
4	5	7	1	2	6	9	3	8
8	6	3	4	9	5	1	2	7